

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NABARIDASKO UDALA

Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen udal araudia behin betiko onartzea

Udalbatzak, 2025eko iralaren 25ko bilkuran, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen udal araudiari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen ordenantzaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epategiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluen arabera.

Nabaridasen, 2025eko abenduaren 16an

Alkatea

MIKEL FERNÁNDEZ CALLEJA

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA-ETXEAREN ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

LEHEN TITULUA

1. artikulua.- Helburua

1.- Araudi honen xedea da harrera-etxearen zerbitzua arautzea (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 1.9.1 fitxa), bigarren modalitatean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat.

2.- Ostatu-zerbitzu hauek, ahal dela, etxebizitza-erakin arrunt batean kokatzen dira.

3.- Ostatu-zerbitzua denez gero, zerbitzu hori eskaintzeak herri-administrazioen zerbitzu-ematea arautzen duen araudia bete behar du; hau da, ostatu-zerbitzuaren erabiltzaileak edo zerbitzua kudeatzen duen entitateak organo eskudunarekin duen harremana ez da izango alokairuaren figura juridikoa, eta ez dio beste inolako eskubiderik emango zerbitzua ematen den higiezinaren edo higiezinaren gainean, jabari publiko gisa berez erabiltzeaz harago. Ostatu-baliabidearen erabilera ez da inola ere denbora mugagabekorako izango.

2. artikulua.- Zerbitzuaren definizioa

1. Baliabide hau aldi baterako da eta hasierako 4 hilabeteko egonaldia luzatu ahal izango da, baldin eta harrera eragin zuten baldintzak mantentzen badira. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eta ez du etxean etengabe diharduen langilerik, ez eta berariaz hari atxikitako langilerik ere. Behar izanez gero, egokiak diren kanpoko laguntzak antolatuko dira.

2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeak iraupen laburreko ostatua eskaintzen die errekupeatzeko eta indarkeria matxistako egoera bat gainditzeko etxebizitza behar duten pertsonen edo bizikidetzak-unitateen, betiere, babes-neurririk behar ez badute.

3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzu eta programekin koordinatuta jardungo du.

3. artikulua.- Helburuak

Hauek dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuaren helburuak:

- a) Erabiltzaileei laguntzea indarkeria matxistaren ondoriozko ostatu-faltak eragindako krisi-egoerak gainditzeko.
- b) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen segurtasun-sentimendua indartzea.

BIGARREN TITULUA**I. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK****4. artikulua.- Zerbitzuaren prestazioak**

1.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuaren prestazioak honako lege hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

2.- Zerbitzu honetan, berariaz, honako prestazio hauek eman ahal izango dira:

- a) Oinarrizko prestazioak:
 - Informazioa.
 - Jarraipenaren balorazioa.
 - Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, hala badagokio.
 - Gizarte-akonpainamendua, hala badagokio.
 - Artekartzea-Bitartekartzea, hala badagokio.

3.- Prestazio hauek araudi honen I. eranskinean garatzen dira.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEEI BURUZ**5. artikulua.- Erabiltzaile izateko bete beharreko baldintzak**

1.- Gizarte-zerbitzuetako erreferentziako profesionalaren preskripzio teknikoa duen aldi baterako ostaturik izateko aukera behar duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak, betiere, zerbitzua hartzaileen beharrei erantzuteko egokia bada.

2.- Harrera-pisu bat eskuratu ahal izateko, pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Eskaera egiten den unean 18 urte edo gehiago izatea.
- b) Ostaturik-zerbitzu batean, langilean presentzia iraunkorrik gabe, eman daitekeen intentsitate txikiko laguntzaren beharra izatea.
- c) Indarkeria matxista gainditzeko prozesuan egotea eta aldi baterako bizileku-aukera bat behar izatea, babes-neurririk behar izan gabe.

3.- Bizikidetza-unitateari eustearren, bizileku-zerbitzura jo ahal izango dute eskatzailearen ardurapean dauden eta eskuarki harekin bizi diren pertsonak ere, adin nagusikoak zein adingabeak izan.

4.- Pertsona onuradunek ezin izango dute inola ere argudiatu ostatua eskusiboki erabiltzeko eskubidea dutela bertan duten antzintasunaren arabera.

5.- Baliabide horien erabiltzaileek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, gizarte-zerbitzuen sarearen berezko zuzkiduren irismentetik eta aukeretatik kanpo.
- b) Jokabide-nahasmendurik ez izatea edo zerbitzuaren funtzionamendua edo ohiko bizikidetzat modu larrian nahas dezakeen portaerarik ez izatea, edo pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskua ekar dezakeen portaerarik ez izatea.
- c) Dagokion tratamendua ez errefusatzea, gaixotasun infekzioso-kutsagarriren bat edo gaixotasun mentalen bat izanez gero.

6. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren zorroa eta iradokizun eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Aldi baterako ostatuan bizitzea.
2. Hartutako bizikidetzat-unitateko pertsona guztiak elkarrekin egon ahal izatea; horretarako, baliabide berean artatu beharko dira (adingabeak babesteko neurriak aplikatzen direnean izan ezik).
3. Sexuagatik, genero-identitateagatik edo sexu-orientazioagatik, arrazagatik, erlijioagatik, ideologiagatik edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik gabeko laguntza jasotzea.
4. Erraz ulertzeko moduko hizkeran informatuak izatea beren eskubide eta betebeharren edukiaz, halakotzat ulertuz eskubideak eraginkortasunez erabiltzea ahalbidetzen duten informazio-, partaidetza-, iradokizun- eta kexa-bideetara iristeko eskubidea.
5. Errespeturik handienaz, zuzentasunez eta ulerkortasunez zainduak izatea.
6. Beren beharrianak eta, ahal den guztietan, beren lehentasunak erabat errespetatuta tratatzea.
7. Dagokien informazioaren pribatutasuna eta konfidentziasuna errespetatuta tratatzea.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan, norberak hobesten duenaren arabera, erraz ulertzeko moduko hizkeran arreta eta informazioa jasotzea; eta

hizkuntza horietako bat ere ez badute ulertzen, behar bezala ulertzeko behar diren itzulpen-eta interpretazio-baliabideak ematea.

9. Zerbitzuaren baldintzetan edozein aldaketa egin aurretik informazioa jasotzea.
10. Erreferentziako profesional bat esleituta izatea, bere beharren ebaluazioa edo diagnostikoa egingo duena, Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) egingo duena eta esku-hartze prozesuaren koherentzia, osotasuna eta jarraitutasuna bilatuko dituen.
11. Zerbitzuaren kalitatea, Araudi honetan zehazten denaren arabera.
12. Une oro funtzionamendurako barne-araudia eskura edukitzea.
13. Gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen kasuan, legezko ordezkarien bitartez bermatuko da haien eskubideen erabilera, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

7. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, erabiltzaileek betebehar hauek izango dituzte:

1. Zerbitzuan sartzeko eskaera-dokumentua sinatzea.
2. Ostatu-zerbitzuaren erabilera arautzen duen akordioa eta etxebizitza erabili eta gozatzeko ezarritako arauak betetzeko konpromisoa sinatzea. Akordio horretan, arreta berezia eskainiko zaio zerbitzuaren kokalekuaren konfidentziasunari.
3. Gizarte-zerbitzuetako erreferentziako profesionalarekin adostutako Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) sinatzea eta betetzea, errekupeazio-prozesurako.
4. Organo eskudunak eskatutako dokumentazioa eskatutako epean aurkeztea.
5. Bere seme-alabak edo bere ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.
6. Baliabidea berarekin partekatzen duten pertsonen pentsamendu-, iritzi-, ideologia-, erlijio-, sexu- eta genero-identitate-askatasuna errespetatzea, eta haiek beren iritzia emateko eskubidea izatea.
7. Baliabideaz arduratzen den erakundeak erabakitako neurriak betetzea erabiltzaileen arteko gatazka edo desadostasunen kasuan.
8. Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea erakustea, egoiliarren eta auzokoen arteko bizikidetzaren errazteko, eta auzokoen komunitatea arautzen duten arauak betetzea.

9. Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea erakustea, gizarte-zerbitzuetako eta, hala badagokio, esku hartzen duten taldeetako profesionalekin.
10. Baliabidean eskura dituen objektuak, ekipamendua eta tresnak egoki eta errespetuz erabiltzea.
11. Zerbitzuaren erabiltzaileak ezingo du, bere borondatez, ostatuan altzaririk edo objektu pertsonalik jarri, gizarte-zerbitzu eskudunek berariazko baimena eman ezean.
12. Ostatua garbitzeaz arduratzea. Ostatua hainbat familia-unitatek partekatu behar badute, erabilera komuneko gelak (sukaldea, aretoa, bainugela, eskailera, ataria) antolatzeke eta garbitzeko akordioak egin beharko dira.
13. Baliabidearen barruan nahita edo zabarkeria larritz egindako kalteen erantzule izatea.
14. Ostatua partekatzea preskripzio teknikoak proposatzen duenean.
15. Baliabideak lekualdatzeko edo aldatzeko baimena ematea, inguruabarrek eta preskripzio teknikoak hala eskatzen dutenean.
16. Ez uztea baimenik ez duten pertsonen baliabidera sartzen edo baliabidea okupatzen/erabiltzen, haiekin duen ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere.
17. Ostatuko giltzen kopiari ez egitea, eta beste inori ez uztea. Egonaldia amaitzean, giltzak etxebizitzaren arduradunari eman beharko zaizkio.
18. Baliabidean animaliarik ez izatea, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean jasotako baldintzetan edo baliabidea kontrolatzen duen erakundeak salbuespen gisa baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.
19. Baliabidean irabazizko jarduerarik ez egitea.
20. Higienearen aurkako material edota material arriskutsurik ez gordetzea, eta berariaz debekatzen da armak edukitzea.
21. Etxebizitzan elkarbizitzarako arazoak edo arriskuak sor ditzakeen substantziarik ez kontsumitzea.
22. Gizarte-zerbitzuei jakinaraztea zerbitzuan edozein kalte konpondu edo hobetu behar denean, eta berariaz debekatzen da zentzu horretan esku hartzea, aldez aurretik baimenik izan gabe. Erabiltzailearen ekimenez matxura bat konpondu ahal izango da soilik jaiegunetan edo zerbitzu eskudunen funtzionamendu-ordutegitik kanpo sortutako egoera larrietan. Kasu horretan, zerbitzu eskudunei jakinaraziko zaie, ahal denean, eta, nolanahi ere, hurrengo 72 orduak baino lehen.
23. Baliabidean sartzean etxebizitzako tresnen eta arreoaren inbentarioa sinatzea. Egonaldiaren amaieran, inbentarioa egiaztatuko da, baita ostatua eta altzariak egoera onean dauden ere.

Akatsen bat edo inbentariatutako ondasunen bat falta bada, erabiltzailea behartuta dago konponketaren edo erosketaren gastuak ordaintzera. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren dokumentuan bertan jasoko dira.

24. Gauda bertan igarotzea derrigorrezkoa izango da. Kanpora joan behar izanez gero, Gizarte Zerbitzuei jakinarazi beharko zaie, eta haiek izango dute egindako eskaerari buruzko erabakia hartzeko ahalmena.
25. Gizarte-zerbitzuetako langileei, beste zerbitzu eskudun batzuetako langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei oztoporik ez jartzea edo baliabidea eskuratzea ez eragozte, hala eskatzen dutenean, baita baliabidea okupatuta dagoenean ere.
26. Gizarte Zerbitzuek egiten dituzten adierazpen guztiei kasu egitea.
27. Hala badagokio, gizarte- eta hezkuntza-taldearen esku-hartzea onartzea, eta taldeak proposatutako jarraibideekin lankidetzan aritzea.
28. Baliabidea uztean, bere ondasun guztiak eraman beharko ditu, eta esleitu zitzaion egoera berean utzi beharko du plaza.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura hasi ahal izango da, araudi honetan araututako prozedurari jarraiki.

III. KAPITULUA.- SARTZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURARI BURUZ

SARRERAREN LEHEN ATALA

8. artikulua.- Zerbitzuan sartzeko eskaera

1.- Sarrerako eskabidea gizarte-zerbitzu eskudunetan jasoko da, eta horiek berehala izapidetu beharko dute, egoeraren larritasuna dela-eta. Eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatu beharko du eskabidea, horretarako formalizatutako eskabide baten bidez.

2.- Prozesuaren edozein unetan, interesdunak atzera egin ahal izango du bere eskaeran; kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, aldez aurretik dagokion ebazpena emanda.

9. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskabideekin batera, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden

dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko. Arlo horretan eskumena duen zerbitzuak/sailak elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu agiri horiek, datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla-eta ezin bada elkarreragingarritasunik ezarri, interesdunari eskatu ahal izango dio izapidetzeko dokumentuak aurkezteko.

Datu pertsonalen tratamendua legimitatuta geratzen da interes publikoaren alde egindako misio batean edo Nabaridasko Udalari berari emandako botere publikoen egikaritzan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datu egokiak eta beharrezkoak baino ez dira eskatuko, tratamenduaren helburuei dagokienez (Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.c artikulua), betiere, datuak minimizatzeke printzipioaren arabera.

3.- Eskatzaileak edo, hala badagokio, gainerako onuradunek uko egiten badiote aurreko paragrafoan aurreikusitako datuak egiaztatzeke edo biltzeko kudeaketak organo eskudunak egiteari, idatziz jasota utzi beharko dute ezezkia eta horren arrazoa, behar bezala justifikatuta.

4.- Datu faltsuak emateak eta datuak ezkatutzeak zerbitzuaren eskatzaile/onuradun izaera galtzea ekarriko du, sor daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

5.- Sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke behar den dokumentazioa aurkezten ez bada, eskaeran atzera egin dela deklaratu da.

10. artikulua- Izapidetzea

Eskaeraren balorazioa gizarte-zerbitzu eskudunek egingo dute, eta txosten sozial/proposamen bat prestatuko dute, honako hauek zehazteko:

- Eskatzailearen eta baliabidera jo nahi duten bizikidetz-unitateko gainerako pertsonen identifikazio-datuak.
- Ostatu-eskaera eragin duten inguruabarrak.
- Ostatu-zerbitzua jasotzeko egokitasunari buruzko balorazioa, eta, aldekoa izanez gero, egonaldiaren proposamena.
- Aldi horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Pertsonak edo bizikidetz-unitateak hartzen dituen konpromisoak.
- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

11. artikulua.- Ebazpena

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala/proposamena egin ondoren, organo eskudunari igorriko zaio, eta hark ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzua eskuratzeko eskaera baiesteko edo ezesteko.

Ebazpena eskaera erregistroetako batean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eten egingo da eskaerak zuzendu behar direnean, jakinarazpena egiten denetik betetzen den arte, edo, bestela, emandako epea igaro arte.

Aurreko zenbakian aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ezetsitzat jo ahalko da, interesdunak

aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izan dezan.

Onespen-ebazpenak alderdi hauetako bat jaso beharko du:

- Zerbitzua eskatzen duten pertsonak zerrendan sartzea.
- Zerbitzuaren kontzesioa, honako hauek zehaztuz: mota, iraupena.

Ezesteko ebazpenak ezesteko arrazoiak jaso beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Araudi honen 6. artikuluan jasotako baldintzak betetzen ez badira.
- Zerbitzua ez bada egokitzen eskatzailearen beharretara.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.

12. artikulua.- Urgentziazko prozedura

1.- Salbuespen gisa eta premia larriko eta urgentziazko kasuei erantzuteko, erreferentziako gizarte-laneko profesionalak proposatuko du ostatu-baliabidea ematen hastea eta berehala ematea, modu arrazoituan.

2.- Urgentziazko sarbideko prozedura ostatuan sartzeko berariazko baimena emanez hasiko da. Baimen hori interesdunak adieraziko du, eskaera sinatuz, eta baimen horri urgentziaren arrazoiak edo kausa egiaztatzen duten agiriak erantsiko zaizkio. Baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira: sartzeko baldintzak betetzen direla berrestea, eta ostatu-zerbitzua erabiltzeko erregulazio-akordioa eta dagokion arreta pertsonalizatuko plana sinatzea. Nolanahi ere, harrera-etxea urgentziaz emateko prozedura hasteko gutxieneko dokumentazioa honako hau izango da: interesdunak sinatutako eskaera, urgentzia eragin duen gertaeraren frogagiria eta/edo gizarte-txostena.

3.- Ostatu-zerbitzua behin-behinean emango da, espedientea osatzeko falta den dokumentazioa 10 egun balioduneko epean aurkeztu eta ebazpena eman arte.

4.- Ostaturik ez badago, urgentzia urgentziazko baliabide baten bidez kudeatuko da.

5.- Urgentziazko prozeduraren bidez ostatatu ondoren, onuradunak ez badu espedientearen izapidean parte hartu nahi, edo, bitartean, egiaztatzen bada eskabideak ukapenezkoa izan behar duela, 13. artikuluan aurreikusitako ukatze-arrazoiaren batean erortzeagatik, ostatu-zerbitzua uzteko betebeharra jakinaraziko zaio, jakinarazpena jaso eta gehienez ere 10 egun naturaleko epean.

6.- Hala egiten ez bada, erabiltzaileak nahitaez irtenaraziko dira, araudi honetako 18. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. ATALA. ZERBITZUAN ONARTUA IZATEARI ETA SARTZEARI BURUZ**13. artikulua.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzurako sarbidea.**

1.- Behin sarbidea onartuz gero, ostatu-zerbitzuan plaza lortu duen pertsonak adierazitako datatik aurrera erabili beharko du, edo, gehienez ere, erabakitako datatik 7 eguneko epean.

2.- 7 egun igaro ondoren, erabiltzailea ez bada ostatu-zerbitzuan sartu arrazoi justifikaturik gabe, izapidetutako espedientetik eratorritako eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

3.- Ezarritako egunean edo epean sartzea eragozten duten inguruabar bereziak gertatzen direnean, interesdunak data aldatzeko edo sartzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, eta beste data edo epe bat finkatuko da organo eskudunaren bitartez. Hala ere, egoerak hala eskatzen badu, ostatu-zerbitzuko plaza hori eskatzaileen zerrendako beste pertsona bati esleitu ahalko zaio, eta eskatzailea hutsik geratutako beste ostatu baten zain geratuko da.

4.- Baliabidea edo zerbitzua eskuratu aurretik, edo nolanahi ere, egun berean, zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duten arauen berri emango zaio etorkizuneko erabiltzaileari, pertsonak ulertzeko moduko hizkuntzan eta moduan. Zerbitzuan sartzeak berekin ekarriko du arau horiek onartzea, eta hori dagokion dokumentua sinatzean formalizatuko da.

5.- Behin pertsona ostatu-zerbitzuan sartu eta gero, pertsona horrek ostatu-zerbitzuan jarraitzea ez dela komeni erakusten duten inguruabarrak gertatzen direnean, eta gizarte-zerbitzu eskudunek aldeztu aurretik txostena egin ondoren, ebazpen arrazoitua emango da, ostatu-zerbitzurako sarrera izateko eskaera ebatzi duen organo eskudunak ostatu-zerbitzua okupatzeari amaiera emateko.

6.- Erabiltzailea izateak ez du ematen baliabide jakin baten gaineko eskubiderik, baizik eta pertsona bakoitzaren lehentasunen, ezaugarrien eta beharren arabera esleitzen zaion ostatu-baliabidearen gainekoa, plazak okupatzeko eta banatzeko aukeren gainekoa; arrazoi berengatik, geroagoko aldaketa proposatu eta zehaztu ahal izango da.

14. artikulua.- Egonaldiaren iraupena

1.- Zerbitzuan egoteko gehieneko denbora norberaren inguruabarren, baliabide egokiagoak bilatzeko aukeren eta aldean artean adostutako APPa betetzearen arabera izango da.

2.- Oro har, harrera-pisuko egonaldiaren gehieneko iraupena 4 hilabetekoa izan daiteke, harrera-etxea eskuratu den egunetik zenbatzen hasita.

2.1. Salbuespen gisa, interesdunak aurrez eskatuta eta kasuaren erreferentziako profesionalaren preskripzio teknikoa edukita, baliabideko egonaldia luzatu ahal izango da. Kasu horretan, gehieneko egonaldia, hasierako egonaldia eta luzapena gehituta, 8 hilabetekoa izango da, luzapen berrien beharra justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean izan ezik.

2.2. Erabiltzaileak edo gizarte-zerbitzuek ofizioz egin ahal izango dute luzapen-eskaera, eta organo eskudunari helaraziko zaio, eskaera justifikatzen duen gizarte-txostenarekin batera, hark ebatz dezan.

IV. KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA AMAITZEA

15. artikulua.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzuan atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

15.1. Atzera egitea

Prozeduraren edozein unetan eta ebazpena eman aurretik, eskatzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak atzera egin ahal izango du eskaeran; kasu horretan, bere borondatea jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez egin beharko du atzera. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, dagokion ebazpena eman ondoren.

15.2. Uko egitea

Prozeduran zerbitzuaren onuradun izaera aitortzeko ebazpena eman bada, erabiltzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak bere eskubideari uko egin ahalko dio, bere borondatea jasota uztea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabiliz.

15.3. Zerbitzua iraungitzea

15.3.1 Zerbitzua automatikoki iraungiko da arrazoi hauengatik:

- a) Aurreikusitako denbora amaitzea.
- b) Uko egitea.
- c) Heriotza.
- d) Pertsona ostatu-zerbitzuan egotea komeni ez dela erakusten duten inguruabarrak.

15.3.2 Bestalde, zerbitzua aurreikusitako eguna baino lehen amaitu dela deklaratu ahal izango da, honako egoera hauetan:

- e) Beharrianaren arrazoia desagertzea.
- f) Erabiltzailea beste zerbitzu batean sartzea.
- g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- h) Zerbitzua eskuratzeko eskatutako baldintzetakoren bat ez betetzea.
- i) Esku-hartzearen jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- j) Beste erabiltzaile edo profesional batzuei eraso fisiko edo psikologikoa egitea (irainak, mehatxuak, jazarpena...).
- k) Horretarako justifikaziorik gabe eta/edo baimenik gabe, baliabidera ez agertzea 3 egun baino gehiagoz jarraian.

- l) Gizarte-zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei baliabidera sartzea galaraztea.
- m) Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) ez izenpetzea edo planean jasotako ekintzak ez betetzea.
- n) Gizarte-zerbitzu eskudunek baimendu gabeko pertsonak bertako ostatu- edo gau-zerbitzua erabiltzea.
- o) Bere premiei egokitutako beste ostatu-aukera alternatibo bati uko egitea, preskripzio teknikoaren arabera.
- p) Hala badagokio, ezarritako aldi baterako etenaldia igaro ondoren, ostatura ez itzultzea.
- q) Erabiltzaileek behin eta berriz ez betetzea araudi honen 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak, edo, hala badagokio, eskuratzeko baldintzak jasotzen dituen dokumentuan aurreikusitakoak.
- r) Osasun-erakundeetan edo erakunde soziosanitarioetan etengabeko laguntza behar duen osasun-egoera izatea.

Zerbitzua aurreikusitako amaiera-data baino lehen iraungitzen bada, organo eskudunaren ebazpen baten bidez egingo da, gizarte-zerbitzuek proposatuta eta interesdunari entzun ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio, eta hark ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du ostatua.

15.3.3 Iraungipena deklaratu ondoren, erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du zerbitzua.

15.3.4 Erabiltzaileak, iraungitze-ebazpen baten ondoren, zerbitzuan berriro sartzeko borondatea agertzen badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

16. artikulua.- Etxegabetze administratiboa

Baldin eta, araudi honetan jasotako arrazoiren batengatik edo emandako epea amaitzeagatik, baliabidea utzi behar duten pertsonak baliabidea uzteari uko egiten badiote, administrazio-utzarazpenaren bidez behartu ahal izango dira, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordeztzen duen araudian aurreikusitako prozedura-izapideei jarraituz.

V. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

17. artikulua.- Doako zerbitzua

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen zerbitzua doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan ezartzen den bezala.

18. artikulua.- Finantzaketa

Zerbitzuaren finantzaketa Administrazio Publikoaren kontura izango da.

VI. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA**19. artikulua.- Arau-hausteak**

Arau-hauste administratiboak dira Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean tipifikatutako legezko eta erregelamenduzko araudiaren aurkako ekintzak eta ez-egiteak, ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan jasotakoei kalterik egin gabe.

20. artikulua.- Zehapenak

1.- Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak eginez gero, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zehapenak aplikatuko dira.

2.- Araudi honetan araututako ostatu-zerbitzuaren erabiltzaileei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso larrien kasuan, zehapen gisa eskubidearen etendura metatu ahal izango da sei hilabetez, etete horrek babesgabetasun-egoera sor lezakeen kasuetan izan ezik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan jasota ez dauden kasu guztietan edo bertan jaso gabe egonik ager daitezkeen kasu berezi guztietan, organo eskudunak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzerako komenigarritzat jotzen dituen neurriak proposatzeko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi hau zerbitzuan sartzeko eskaera berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau ez zaie aplikatuko zerbitzua indarrean jarri aurretik erabiltzen zuten pertsonen, nahiz eta hilabete bateko epean eskatu ahal izango duten. Aldaketa onartu ondoren, ezin izango da berriro eskatu aurreko araudia aplikatzea. Zerbitzuan alta ematen den guztietan (baita aurreko sistema aplikatzen zitzaizen pertsonak desagertutakoan ere), araudi honetan aurreikusitako xedapenak bete beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira maila bereko edo beheragoko arau guztiak, araudi honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden puntuetan.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA**PRESTAZIOAK****A) Informazioa**

Prestazio honek aukera ematen die pertsona, familia eta erabiltzaile-taldeei garaiz eta behar bezala ezagutzeko beren gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu ditzaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoak.

B) Jarraipenaren balorazioa

Horrek esan nahi du Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egin behar direla, intentsitate handiago edo txikiagoarekin.

C) Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea

Erabiltzaileek beren kabuz moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarriak diren ezagutzak, jarrerak, ohiturak edo gaitasunak bereganatzeko prozesu luze samarra ezartzea dakarten prestazio teknikoak.

D) Gizarte-akopainamendua:

Prestazio honen bidez, pertsona batek, kualifikatutako profesional batekin elkarerraginean, laguntza harreman batean parte hartzen du, eta harreman horrek lagundu egiten dio bere kabuz moldatzen eta gizarteratzen.

Sakonagoa edo arinagoa izan daiteke, pertsonaren laguntza behararen arabera. Erabiltzaileak eskatutako akopainamenduaren intentsitatea aldatu (nahi izanez gero, murriztu) duen ibilbideak planteatu daitezkeela ulertzen da.

E) Artekaritza – Bitartekaritza:

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek pertsonaren eta haren ingurunearen (familiakoa, taldekoa edo komunitarioa) arteko interakzioa hobetzera eta gizarte-gaitasunak garatzera bideratzeko prozedura.